



MIGRAZIO
ETA ASILO
EUSKAL
FOROA

FORO
VASCO
DE MIGRACIÓN
Y ASILO

MEMORIA 2023

MIGRAZIO ETA ASILO EUSKAL FOROA

FORO VASCO DE MIGRACION Y ASILO

Osoko bilkura, 2024ko otsailak 21

Sesión plenaria, 21 de febrero de 2024



BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
Gizarte Politiketako Sailburuordetza
Migrazio eta Asilo Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLITICAS SOCIALES
Viceconsejería de Políticas Sociales
Dirección de Migración y Asilo

MEMORIA 2023

MIGRAZIO ETA ASILO FOROA

Hitzaurrea

Migrazioaren eta Asiloaren EAEko Foroaren helburua da hainbat alderen arteko hausnarketarako eta koordinaziorako gune bat izatea –gizarte-eragileen, gizarte-erakundeen eta erakunde humanitarioen, sindikatuen, enpresaburuen, erakundeen eta administrazio publikoen artekoa– biztanle atzerritar eta errefuxiatuak integratzeko konpromisoa duten alderdi guztien artean lan eraginkorra lortzeko.

Horretarako, Foroak hainbat neurri proposatzen ditu, jatorri ezberdinetako jendea elkarrekin bizitze hutsa lagungarri izan dezagun, gizarte osoa aberasteko, bizikidetzak aktibo bihurtuta. Ahalegin guztiak koordinatzen asmatu behar dugu. Horretan asmatuz gero, herritartasun zibikoaren kontzeptuari taxua emango diogu eta herritartasun arduratsua erdietsi genezake, hau da, gure gizartean herritar denek izango dituzten eskubide eta betebeharrak, edozein jatorrikoak direla ere.

Foroa tresna operatiboa izateko sortu da, eraginkortasun-irizpidea bete beharrez, eta hasiera-hasieratik lehentasunezko kontua izan da Batzordeak elkarrekin koordinatuta lan egitea. Batzorde Iraunkorraren eginkizun nagusia da batzordeen lana bultzatzea, horretan egiten du lan, Idazkaritza Teknikoarekin eta Koordinazioko Idazkaritzarekin batera. Osoko Bilkurak, bestalde, batzordeen lana biltzen du, organo paritarioa eta formala den aldetik. Osoko Bilkurako akordioek bidez mamituko dute elkarrekiko konpromisoa Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek eta gizarte-eragile, gizarte-erakunde, erakunde humanitario, sindikatu eta enpresaburuak, jatorri atzerritarren nahiz errefuxiatuen integratzeko eta bizikidetzarako neurriak ezartzeko denen artean.

Hauek dira Foroaren helburuak eta xedeak:

- a. Jatorri atzerritarreko jendea integratzea, hau da, desberdinen arteko egokitzapena bideratzea (noranzko biko integrazioa).
- b. Foroan parte hartzea, ekarpenak eta proposamenak batzeko gune izan dadin, sinetsita gaudenez immigrazio-politikak herritarren iritzia kontuan hartu behar duela.
- c. Den-denak berdin izatea eskubide eta betebeharrak dagokienez, horrek horrela izan behar baitu, ezinbestean, herritartasun arduratsua eratuko badugu.

Migrazioaren eta Asiloaren Foro honek aurreko foroaren –Herritar Migratzaileen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroaren (2002an sortua, abuztuaren 30eko 200/2002 Dekretuaren bidez)– lekua hartu duela jaso genuen iaz. Aldaketa hori gaur egungo migrazio-mugimenduen etorkizunarekin lotuta zegoen, bai eta kontsulta-organo hau berri beharrek ere, Herritartasunaren, Kulturartekotasunaren eta Immigrazioaren Esparruan Jarduteko V. Planaren (2018-2020) ebaluazioa gauzatu eta Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Plana (2022-2025) egin ondoren (biak Eusko Jaurlaritzarenak). Aurten, Migrazioaren eta Asiloaren EAEko Foroa sortzen duen maiatzaren 9ko 67/2023 Dekretua onartu da.

Aurten, halaber, bi batzorde berriren lana jarri da martxan: Asiloaren Lan Batzordearena eta Euskararen eta Hizkuntza Aniztasunaren Lan Batzordearena. Orobat, sinplifikatu egin da lan-batzordeetan sartzeko prozesua, migrazioen eta aniztasunaren eremuan lan egiten duten gizarte-eragile eta -erakundeek parte-hartze eta ordezkaritza handiagoa izan dezaten.

Joan den ikasturtetik, Foroak egiten duen lanaren berri ematea garrantzitsua dela nabarmentzen ari gara. Ildo horretan, aurten, Idazkaritza Teknikoa eta Koordinaziorako Idazkaritza elkarlanean aritu dira webgune bat sortzeko, Foroa osatzen duten lan-batzordeetako bakoitzak garatutako jarduerak eta lanen berri eman eta komunikatzeko. Eta hemen dakarkigu webgune hori poz handiz: <https://www.euskadi.eus/migrazio-asilo-foroa/> helbidean.

BATZORDEEN LANA

Gizarte Baliabide eta Etxebizitza batzordea

Egindako lana:

1. Etxebizitzaren arloko informazio-triptiko bat egitea. Etxebiden prozesuaren eta izapideen oinarritzko informazioa formatu horren bidez transmititzea lortzean zentratu da lana. Edukia Etxebizitza Sailarekin kontrastatu eta baliozkotu da.
2. Gizarte-baliabideen direktorioa aurkeztea. 2022tik, batzordea direktorioa eta izan dituen aldaketak ezagutzen saiatzen da. Aurten, Gizarte Informazio eta Ikerketa Zerbitzuaren presentzia izan dugu; datuak irauli eta direktorio hori eguneratzeaz arduratzen da erakunde hori.
3. Batzordea indartu egin da, lau erakunde berri sartu baitira (batzordeak 2023rako ezarri zuen helburuetako bat da hori, izan ere).

2024ra begira, honako lan-ildo hauek proposatzen dira:

1. Egindako triptikoari jarraipena egitea eta haren erabilera baloratzea.
2. Batzordearen helburuak gizarte-baliabideen ildoan birbideratzea. Gizarte-baliabideen direktorioa zabaltzea nahi da, eta, ahal den neurrian, baita tresna hori elikatu ere. Horretarako, Gizarte Informazio eta Ikerketa Zerbitzuarekin kontaktuan jarriko gara berriz.
3. Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuak gonbidatzea eta haien parte-hartzea lortzea, batzordearen gizarte-baliabideen ildoan bultzatze aldera.
4. Foru-aldundiak batzordera gonbidatzea eta bertan sartzea, gizarte-baliabideen arloan haien ezagutza eta esperientzia funtsezkotzat jotzen den heinean.

Harrera eta Bizikidetzaren Batzordea

Egindako lana:

2023an bi lan-ildo nagusitan egin dugu aurrera:

1. «Euskadin tokiko harrera-politikak diseinatzeko orientabideak» dokumentua berrikustea eta kontrastatzea. Prozesu honetan, hainbat ekarpen planteatu dira, hala nola hauek:
 - a. Erantzukizun publikoaren printzipioak harrera-politiken garapenean duen garrantzia;
 - b. Erakundeen arteko eta maila anitzeko koordinazioaren garrantzia;
 - c. Nabarmentzea sektore sozialak – bereziki, jatorri atzerritarrekoen sektoreak – betetzen duen zeregina gako delako, tokiko harrera-politiken diagnostikoan, diseinuan, ezarpenean, jarraipenean eta ebaluazioan.

Toki-agendan harrera sartzeari eta orientabideak aplikatzeari dagokionez, estrategikotzat eta beharrezkotzat jotzen dugu EUDEL Euskadiko Udalen Elkartearen inplikazioa. Alde horretatik, Batzordeak oso positibotzat jo du testuan EUDELek jasotako orientabideak bere esku-hartzeko esparrura eramateko sortu duen lan-batzorde espezifikoak.

2. Migrazio eta Asilo Zuzendaritzarekin lankidetzan, Herritartasunaren, immigrazioaren eta asiloaren Kulturarteko VI. Planaren 4.1.2.1 ekintzaren exekuzioaren jarraipena egitea; eta, horren barruan, «Euskal Harrera Eredu berriaren proba pilotua egitea».

Batzorde honek hainbat aldiz adierazi du erakunde propioa duten jardura, programa eta baliabideetan harrera-politikak zehaztea garrantzitsua dela. Horregatik, batzordeari oso pozgarria iruditu zaio 2024tik aurrera Bilbon Harreragune esperientzia pilotua abian jartzea. Esperientzia horrek hainbat eragileren lana eta ahaleginak hezurramitzen ditu, besteak beste, batzorde honena. Espero dugu esperientzia, aurreikusita dagoen bezala, Euskadiko gainerako lurraldeetara eramatea.

2024ra begira, honako lan-ildo hauek proposatzen dira:

1. Migrazio eta Asilo Zuzendaritzak ezarritako jarraibideen arabera, aurrez aipatutako bi lan-ildoetan gertatzen diren aurrerapenei jarraipena egitea. Zuzendaritzaren, EUDEL-en eta inplikaturako gainerako alderdien esku jarri da Batzordea, gure batzordearen eginkizunen esparruan, Harreragune esperientzia pilotua abian jartzen eta «Euskadin tokiko harrera-politikak diseinatzeko orientabideak» dokumentuan jasotako orientabideak aplikatzen laguntzeko.
2. Barne-jardunaldi bat antolatzea, harrera eta enplegua lotzen dituzten toki-esperientziak analizatzeko. Hemendik orientabide espezifikoak eta osagarriak, zehatzak eta praktikoak planteatu nahi dira harrera- eta enplegu-tandemean. Ildo horretan, lan-batzordearekin hitz egitea eta lankidetzan aritzea proposatzen dugu.

Gure ustez, euskal harrera-eredua garatzearen parte diren zeregin horietan garrantzitsua izango litzateke 2024an foru-aldundiek batzordean parte hartzea.

Osasun Batzordea

Egindako lana:

1. Eusko Jaurlaritzako Epidemiologia Sailaren tuberkulosiari buruzko informazio-triptikoak zabaldu ziren Foroko batzordeen artean.

Bilbon antzemandako agerraldi baten ondorioz, Epidemiologia Sailak aurkezpen bat egin zion batzordeari, Concha Castellsen eskutik, eta batzordeari laguntza eskatu zitzaion informazioa zabaltzeko.

2. Bilbon ikastaro pilotu bat egin zen, Osakidetzako osasun-arretaren kudeaketaz arduratzen diren pertsonak prestatzeko eta sentsibilizatzeko.

34 pertsonak egin zuten ikastaroa: Osakidetzako profesionalek (administrazio-langileak, lehen mailako arreta, pazientearen arretarako zerbitzuak, osasun-aseguramendua, etab.) eta Foroko batzordeetako erakundeetako langileak.

Ikastaro pilotuaren balorazioa ez da ona izan, eta horrekin ez jarraitzea erabaki da.

3. Biltzen-ek 2007an migratzaileei arreta psikosoziala emateko zerbitzuei buruz egindako txostena kontrastatu eta eguneratu zen.
4. Groseko (Donostia) anbulatorioko emaginek ugalketa-osasunari buruz egindako lana euskaratu eta Foroko batzordeen artean zabaldu zen.

2024ra begira, honako lan-ildo hauek proposatzen dira:

1. Jarduketa-protokolo bat sortzea osasun-aseguramendua ukatzen denerako, bai eta 2023ko eta 2024ko kasuistikak jasoko dituen dokumentu bat ere.
2. Osakidetzako administrarientzako prestakuntza birplanteatu eta birbideratzea.
3. Osasun Sailarekin batera, jatorri atzerritarreko emakumeen artean HBEaren – Haurdunaldiaren Borondatezko Etenduraren– prebalentzia handienaren kausei buruzko azterlan bat egiteko bideak aztertzea.

Berdintasun Batzordea

Egindako lana:

1. Emakunderekin segimendu- eta kontraste-lana egin da, behartutako ezkontzen arretarako protokoloa eta jarduketa-protokoloa sortzeko.
2. Generoari eta interseksionalitateari buruzko prestakuntza bat egin da, Migrazioaren eta Asiloaren Euskal Foroko batzordeentzat, azaroaren 25ean eta 26an, Gasteizen eta Bilbon. Haurralde, Bidez Bide eta Biltzen-ek berdintasun-batzordean dituzten ordezkariak eman zuten prestakuntza. Alde horretatik, balorazio positiboa izan du.
- 3.

2024ra begira, honako lan-ildo hauek proposatzen dira:

Triptiko bat sortzea, Berdintasunerako Euskal Legeari, Atzerritarrei buruzko Legeari dagokionez emakumeei ematen zaien babesari buruzko eta EAEn eremu horretan existitzen diren baliabideei buruzko informazioa jasotzeko, hainbat hizkuntzatan.

Hezkuntza-batzordea

Egindako lana:

1. Bi informazio-triptiko diseinatzea eta garatzea, emigratzeko asmoa duten familien artean jatorrizko herrialdeetan banatzeko. Batzordeak beharrezkotzat jo du euskal eskola-sistemari buruzko informazioa modu erraz eta eskuragarrian helaraztea, bereziki jatorrian Euskal Autonomia Erkidegorako migrazio-proiektuarekin hasten diren familiei. Horretarako, honako hauek landu dira:
 - a. Derrigorrezko hezkuntzarako triptiko bat (6-16 urteko neska-mutilak)
 - b. Hezkuntza ez-derrigorrezkorako triptiko bat (16 urtetik gorakoak).

Triptiko horiek Hezkuntza Zuzendaritzaren onespena dute. Euskaraz eta gaztelaniaz gain, hizkuntza hauetara itzuliko dira: ingelesa, frantsesa, errumaniera, portugesa, arabiera eta txinera.

Foroko erakunde guztien bidez zabaldu eta banatuko da, online formatuan. Paperezko ale gutxi batzuk gordeko ditugu.

2. Guraso-elkarteetan parte hartzearen eta guraso-elkarteetako pertsonentzat beharrezkoa den kulturarteko begiradaren garrantziari buruzko sentsibilizazioa garatzeko proposamena egin da.

Bi proposamen horiek 2022an egin ziren, Batzordeak ikastetxeetako familiei zuzendutako galdetegi txiki bat diseinatu eta aplikatu ondoren.

3. Hezkuntza Saileko Helduen hezkuntzarako ikastetxeen arduradun Marisa Domínguezek HHlen antolaketa, funtzionamendua eta osaerari buruzko aurkezpena egin die batzordeari. Aurkezpen honetan honako hauek nabarmendu dira:
 - a. Prestakuntza ez-arautuaren esparruko eskaintza: gaztelania eta/edo euskara (A1 mailara arte); ikasle hasi berrientzako harrera-programak; eta Espainiako nazionalitatea lortzeko probarako prestakuntza.
 - b. Azken urteotan eskainitako lanpostuen eta matrikulazioen kopurua murriztu egin dira. Eskatutako prestakuntzen eskaria ere aldatu egin da.
 - c. Hezkuntza Sailaren eta Lanbideren arteko koordinaziorik eza dela-eta, behin-behineko eskaintzaren eta oinarrizko prestakuntzaren parte bat bikoiztu egiten da. Koordinazio falta horrek erabiltzaileen prestakuntza-ibilbideei ere eragiten die; izan ere, erabiltzaileen prestakuntza-prozesua HHletan eteten dute, Lanbideren prestakuntza-eskaintzari erantzuteko.

Aurkezpen horretatik aurrera, informazioa eskatu zaio Eusko Jaurlaritzako Estatistika Sailari, laneko ibilbide-orri bat sortzeko ildo horretan.

2024ra begira, honako lan-ildo hauek proposatzen dira:

1. Euskal eskola-sistemari buruzko informazio-triptikoak argitaratzea, banatzea eta zabaltzea.
2. Familiek ikastetxeetako guraso-elkarteetan parte hartzeak duen garrantziari buruzko sentsibilizazio-hitzaldien proposamen bat egitea, eta kulturartekotasunari buruzko prestakuntza ematea guraso-elkarteetako kideei.
3. Helduen hezkuntzarako ikastetxeen inguruan sakonago lan egitea.
4. Lanbide Heziketari buruzko araudi berriaren efektuak kontsultatzea; izan ere, arau berriaren ondoren, 2024ko urtarriletik aurrera lan-praktikak egiteko Gizarte Segurantzaren alta emanda egon behar da.
5. Hizkuntza-eskolei buruzko araudi berriaren ondorioak kontsultatzea; izan ere, 2024ko urtarriletik aurrera bizileku-txartela behar dute pertsonak ikastaroetan onartuak izateko eta horietan jarraitzeko.
6. Eskola-jazarpena gertatzen denean jarduteko protokoloak eta gidaliburuak ezagutzea.
7. Eskola inklusiboaren eta kulturartekoaren esparruan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Planaren (2016-2020) ebaluazioari jarraipena egitea.

Lan Batzordea

Egindako lana:

2023an gure jarduerak oso markatuak egon dira joan den 2022/07/26an 629/2022 Erregelamendua onartu genuelako, sustraitze-figura berri bati atea irekitzen ziona, prestakuntzarako errotzea.

Aurreko ekitaldian ere, 2022an, Lan Batzordeak erabaki zuen oso garrantzitsua zela atzeritar jatorriko pertsonen zuzendutako informazio-ekintzak bultzatzea atzeritarrek

Espanian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamenduaren aldaketari buruz, eta 2023an gauzatu dira ekintzak.

Lehenik eta behin, Biltzen – Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari atxikitako titulartasun publikoko zerbitzua – zerbitzuko Nuria Martinez legelariaren bitartez, Batzordeko kideok errotzeko figura berri horren berezitasunak zehatz-mehatz ezagutzeko aukera izan genuen. Informazio-saio horren ondoren, bi lan-ildo abian jartzea erabaki genuen, informazioa bi interes-taldeei helarazteko: enpresei eta migratutako pertsoneri.

Horrela, Migrazio eta Asilorako Euskal Foroaren Lan Batzordeak hiru informazio-saio sustatu ditu hiru lurralde historikoetako hiru hiriburuetan, bereziki atzerriar jatorriko pertsoneri informazioa eskaintzera bideratuak.

Bi gai jorratu ziren: Atzerriartasunaren arloko arau-esparrua: prestakuntzarako errotzea eta Prestakuntza Espezialitateen eta Inskribatutako Erakundeen Katalogoa/Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren prestakuntza-eskaintza.

Gaien azalpenak Virginia Cid Biltzen zerbitzu publikoko atzerriartasun arloko legelariak eta Eduardo Campo Guillerna Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Prestakuntza Zerbitzuko Deialdiak Kudeatzeko koordinatzaileak aurkeztu zituzten.

Arabako lehen saioa Gasteizen izan zen. Informazio-saioan 68 pertsonak parte hartu zuten (35 emakume-33 gizon), besteak beste, Arabako gizarte-erakundeetako erabiltzaileak, enpresetako ordezkariak, ikastetxeetako irakasleak, Eusko Jaurlaritzako teknikariak eta hirugarren sektoreko profesionalak.

Bigarren informazio-saioa Bilbon egin zen, irailaren 19an, UGT Euskadiren egoitzan. 86 pertsona bertaratu ziren (55 emakume eta 31 gizon). Bertaratutakoen profila, gehienak atzerriarrak, jardunaldietan azaldutako gaiari buruzko informazioaren beharrari erantzuten dio, baita esku-hartze sozialean lan egiten duten profesionaleri eta enpresaburuei ere.

Hirugarren jardunaldia irailaren 20an egin zen Donostian, Udalaren Musika eta Dantza Eskolan, eta 56 pertsonak hartu zuten parte (42 gizon eta 14 emakume), gehienak atzerriarrak.

Informazio-saioak aurreikusitakoaren arabera egin ziren, parte-hartzaileen arteko lankidetzeta- eta elkarrizketa-giroan. Proposatutako helburuak behar bezala bete zirela uste da, eta bertaratutako pertsona guztientzat aberasgarria izan zen informazioa eta ezagutzak trukatzeko lortu zen.

Lan Batzordean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta, bereziki, Eduardo Campo Guillernaren laguntza nabarmendu eta eskertu nahi dugu, interes handiko informazio-kanpaina honetan aktiboki parte hartzeagatik, bai migratuentzat, bai bertaratzeko aukera izan genuen sektoreko profesionalentzat. Ildo horretan, Lanbideek jakinarazi zuen 2024rako dirulaguntza lerro bat jarriko dela abian, prestakuntza errotzeko figura horrekin lotuta.

Bigarren lan-ildoan enpresei zuzendutako informazio-pieza bat (triptikoa) sortzea izan da. Pieza horrek Euskadin bizi diren atzerriarrak kontratatzeko aukerei buruzko informazio zehatza eta harremanetarako xehetasunak izango ditu, informazioa zabaltzeko. Horretarako, lantalde tekniko bat eratu zen, Confebask, Gizakia, Biltzen, Gurutze Gorria, Cite-CCOO eta UGT sindikatuek osatua.

Liburuxka informatibo hau Lan Batzordea osatzen dugun erakundeen bidez banatu da, baina bereziki aipatu behar dugu Confebaskek Euskadiko enpresa-sare osora zabaltzeko egin duen ekarpena. Gainera, Foroaren webgunean dago eskuragarri.

2024rako, honako lan-ildo hauek proposatzen dira:

1. Etxeko langileentzako lan-arriskuen prebentzioa.
2. Informazio-liburuxka batzordea osatzen duten erakunde guztien bidez zabaldu da, eta, bereziki, Confebasketik EAEko enpresa-sare osora.

Berme juridikoen batzordea

Egindako lana:

Urtean zehar bi lan-ildo garatu dira: batetik, Oinarrizko Ordainketa Kontu bat –OOK– irekitzeko zailtasunak, eta, bestetik, migratutako pertsonen EAEn unibertsitateaz kanpoko bekak eskuratzea.

1. Zailtasunak OOK bat irekitzeko: txosten/irizpen bat egin da, azterketa juridiko bat eta proposamen-atal bat jasotzen dituen, euskal erakundeentzako proposamen zehatzak eta guzti, egoera zuzentze aldera.

Ildo horretan, bilera bat egin da Kontsumobidek Bizkaian duen arduradunarekin, eta hark, elkarrekin hausnartu ondoren, gai horretan eragiteko konpromisoa hartu du, bankuei zuzendutako gomendio eta iradokizunen bidez, 4/2023 Kontsumoari buruzko Euskal Legeak eskaintzen duen marjinaren barruan.

2. BideaEginez Elkartek, Laura Olartua Deustuko Unibertsitateko praktika juridikoko ikaslearekin lankidetzan, azterlan bat aurkeztu du, migratutako pertsonen EAEn unibertsitateaz kanpoko beketarako duten sarbideari buruzkoa. Berriz detektatu da bekak ukatzeko joera-ildo jakin bat badagoela, eta horrek bereziki eragiten diela atzerriko nazionalitatea dutenei. Gainera, maiz ukatu egiten zaizkie bekak, bai egoera administratibo irregularrean daudenean, bai ikasketak egiteko egonaldi-baimena dutenean.
3. Jatorri atzeritarreko pertsonen unibertsitate-ikasketetarako beketarako sarbidea izateari buruzko artikulu formala batzuk idatzi dira propio. 2023/24 deialdiaren esparru materialak harik eta gehiago aztertu dira, honako hauek argitzeko:
 - a. Egoitzatik berariaz baztertua atzeritarrei buruzko araudiari –eta, batez ere, hezkuntzarako eskubideari– jarraitzen dion betekizuna ote den.
 - b. Paradoxikoa da egoera irregularrean dagoen pertsona batek UPV/EHUn ikasteko aukera izatea, baina bekarik ezin eskuratzea.

2024ra begira, honako lan-ildo hauek proposatzen dira:

1. Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuarekin elkarrizketa bat hastea, lan-ildoan Oinarrizko Ordainketa Kontuei buruz sortutako gaiak planteatzeko. Zehazki, aztertu behar da nola uztartu berme instituzionala ematea OOK bat irekitzeko baldintzak betetzeko eta gizarte-prestazioen prozeduran sartzea.
2. EUDELekin (gizarte-larrialdiko laguntzak eta beste laguntza batzuk izapidetzeko eskumena duten udalerrak ordezkatzen dituen erakundea den aldetik) eredu-kasu bat lantzea, Oinarrizko Ordainketa Kontuei dagokienez, non ezarritako bankuetan eragiteko estrategiak diseinatu baitira udalerrak bat aukeratuz.
3. Unibertsitateaz kanpoko beken araudian sartuko diren aldaketen eraginari jarraipena egitea.
4. Atzeritarrei buruzko Legearen hezkuntzarako eskubidearen eta lege hori gauzatzeko bekak lortzeko eskubidearen arteko harremanari buruzko analisi, azterlan eta hausnarketa bat egitea. Gai horri lotuta, autonomia-erkidego batek atzeritarrei buruzko araudiak araututakoak baino irizpide zabalagoak ezartzeko aukera dago.

Asilo Batzordea

Egindako lana:

1. Honako gai hauei jarraipena egitea eta heltzea:
 - a. Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Lege berria onartu ondoren, aldatetek nazioarteko eta aldi baterako babesaren eskatzaileen eta onuradunen egoeran izango duten eragina.
 - b. Nazioarteko eta aldi baterako babeseko harrera-sistemaren egoera EAEko zentroetan, bai eta babes komunitarioko programena ere.
 - c. Ukrainako inbasioaren ondorioz erbestera joan behar izan dutenei eman beharreko arreta.
 - d. EAEan trantsituan dauden pertsoneri buruzko txostena.
2. Migrazio eta Asiloko zuzendariak informazio-batzordeari Lesbos uharteko egoera helaraztea, Eusko Jaurlaritzako delegazio batek Zaporeak GKEarekin batera egindako bisitaren ondoren.
3. Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak informazioa helaraztea Kanarietako egoera humanitarioari buruz eta Eusko Jaurlaritzak Kanarietako Gobernuarekin lankidetzan aritzeko eta EAEko egoerari heltzeko egindako jarduketei buruz. Bestalde, Espainiako Gobernuaren ordezkariak mugako egoeraren berri eman zuen, eta Accem erakundeak, halaber, uharteetatik arreta humanitarioko zentroetan artxipelagotik iritsitako jendeari eman beharreko harrerari buruz.

2024ra begira, honako lan-ildo hauek proposatzen dira:

1. Babes-eskatzaileek eta -onuradunek lanerako sarbidea izatearen arazoa tratatzea.
2. Nazioarteko babes-eskabideetarako sarbidea tratatzea, bai eta polizia nazionalaren komisarietako beste izapide batzuetarako sarbidea ere.

Partaidetza, Kultura eta Sentsibilizazio Batzordea

Egindako lana:

2023ko MAIATZEKO UDAL-ELIZETAN ETORKINEK BOTOA EMATEKO DUTEN ESKUBIDEARI BURUZKO INFORMAZIO-KANPAINA

EUDELeKin batera, informazio-dokumentazioa prestatzea, PDF formatuan eta hainbat hizkuntzatan, elkarrekin edo horri buruzko informazioa eskatu zitzaizen udaletako teknikariek inprimatu ahal izan zezaten (dokumentazio hori Foroaren webgunean dago).

Eraginaren jarraipena egin zen, eta foroko koordinazio-idazkaritzak azterketa bat aurkeztu zuen hauteskunde horietan botoa emateko eskubidea duten atzerritar jatorriko pertsonen parte-hartzeari buruz, eta aurreko hauteskunde-prozesuekin alderatu ziren.

KULTURKLIK AGENDA

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburuordetzarekin akordio bat ezartzea, kulturartekotasunaren eremuan sustatutako ekitaldi guztiak KultuKlik plataforman integratzea sustatzeko, kultura-agenda inklusiboagoa eta aniztasunari irekiagoa lortzeko helburuarekin.

KulturKlik zer den azaltzen duen dokumentu bat egitea. Euskadin gehien bisitatzen den plataformetako bat da, eta erreferentzia da kultura-jardueren programazioaren kontsultan. Halaber, ekitaldiak webgune honetara igotzeko jarraitu beharreko prozedura teknikoa zehazten da. Dokumentu hori batzordeko kide diren erakunde eta instituzioen bidez zabaltzen da EAEko atzerritar jatorriko pertsonen elkarte-sarean.

ASOZIAZIONISMOAREN DIAGNOSI-AZTERLANA

Batzorde horrek iazko Osoko Bilkuran egindako proposamenari erantzuteko, EAEko atzerritar jatorriko pertsonen asoziazionismoari buruzko azterlan diagnostiko bat egiteko eskatu zuen Ikuspegik, eta Batzordeari pilotu proiektu bat aurkeztu zion, une honetan aztertzen ari dena, baina, zalantzarik gabe, aurten martxan jarriko dena.

Ikuspegik Batzordearen proposamenak eta ekarpenak eskatu zituen etorkizuneko ikerketaren metodologiari eta garapenari buruz. Honako hauek dira:

- Gaiari ezagutza duten pertsona migratuak proiektuan sartzea.
- Atzerritar jatorriko pertsona kualifikatuaren profila sartzea ikerketa-taldean.

2024rako, honako lan-ildo hauek proposatzen dira:

1. 2024ko Europako hauteskunde-prozesuarekin lotutako jarduerak proposatzea.
2. Ikuspegirekin lankidetzan aritzea diagnostikoa egiteko.
3. Kulturarteko agenda Kulturkliken integratzeko prozesua osatzea.

4. Atzerriko jatorria duten erakunde eta elkarteek erakundeetan eta gizartean parte har dezaten sustatzea.

Euskararen eta Hizkuntza Aniztasunaren Lan Batzordea

Egindako lana:

Lehen urte honetako bilkuretan, parte-hartzaileen eta haien lanaren aurkezpenaz gain, Batzordearen lan-esparrua eta lan-ildoak zehaztu dira.

Horretarako, kideen esperientziak, ekarpenak eta proposamenak bildu dira eta laster gauzatuko den lan-plan batean bilduko dira. Ildo beretik, tokian tokiko ekimenei eutsi zaie, eta arlo horretan esperientzia duten erakunde eta eragileen (immigrazioa eta euskara) esperientzia (4.3.4.1) bildu da (UEMA, Topagune, etab.).

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin (4.3.4.5) harremanetan jarri gara, lankidetzan aritzeko. Bestalde, truke horren bidez, Euskararen eta Hizkuntza Aniztasunaren Batzordeak ekarpenak egin dizkio EBEP (Euskara Bultzatzeko Ekintza Plana) berriari.

2024ra begira, honako lan-ildo hauek proposatzen dira:

1. Alde batetik, Batzordeak berak dagoeneko elkartuta dauden erakundeen parte-hartzea fidelizatzeko ahalegina areagotu nahi da, eta horretarako bultzada eman.
2. Batzordearen eta haren helburuen berri ematea foroko gainerako batzordeei, aukera hori baliatuz Foroko kideen artean ezagutza, hartu-emana eta elikadura abian jarri eta sendotzeko.
3. Euskara harrera-eredu eta -estrategien berezko osagai izan dadila, toki-erakundeei arreta berezia eskainiz.

Eskura dauden zereginak zedarritzea eta lana zeregin horietan zentratzea.

- Ekimen zehatzak: euskara hurbiltzeko eta ikasteko baliabideak handitzea; kolektiboekin, eragile objektiboekin eta abarrekin harremanak izatea; dauden ekimenak (adibidez, Ongi Etorri Eskolara).

MEMORIA 2023

FORO DE MIGRACIÓN Y ASILO

Introducción

El Foro Vasco de Migración y Asilo tiene como objetivo ser un espacio de reflexión y coordinación entre los distintos actores sociales, organizaciones sociales y humanitarias, sindicatos, empresariado, instituciones y administraciones públicas, con el fin de lograr un trabajo más eficaz entre todas las partes comprometidas en la integración de la población de origen extranjero y refugiada.

Para ello, el Foro propone medidas para desarrollar instrumentos que colaboren a que la mera coexistencia de personas de diversos orígenes pueda convertirse en una convivencia activa que enriquezca a toda la sociedad. Solo con la confluencia coordinada de todos los esfuerzos se podrá avanzar hasta llenar de contenido un concepto de ciudadanía cívica como ciudadanía responsable, es decir, formada por ciudadanas y ciudadanos con derechos y obligaciones, independientemente de su origen.

El Foro se crea como instrumento operativo, en cumplimiento del criterio de eficacia, dándose prioridad desde el comienzo al trabajo coordinado de las Comisiones. La Comisión Permanente tiene como función principal colaborar e impulsar el trabajo de las Comisiones, junto con las Secretaría Técnica y de Coordinación. El Pleno como órgano paritario y formal recoge el trabajo de las Comisiones. Sus acuerdos, permitirán el compromiso de las Administraciones Públicas Vascas y de los actores sociales, organizaciones sociales, humanitarias, sindicales y empresariado, para el establecimiento de medidas dirigidas a la integración y a la convivencia de las ciudadanas y los ciudadanos de origen extranjero, así como de las personas refugiadas.

Los objetivos y finalidades últimas del Foro son:

- a. La integración de las personas de origen extranjero, entendiendo por tal la adaptación entre diferentes, es decir, una integración de carácter bidireccional.
- b. La participación en el Foro, como espacio en donde sumar aportaciones y propuestas, desde el convencimiento de que la política en inmigración debe tener en cuenta la opinión de la ciudadanía.
- c. La igualdad de todas las personas en derechos y deberes, un reconocimiento que es previo para articular una ciudadanía responsable.

El año pasado recogíamos cómo este Foro ha venido a sustituir al antiguo Foro para la Integración y Participación Social de las Ciudadanas y Ciudadanos Migrantes que se creó en el 2002 (Decreto

200/2002 de 30 de agosto). Un cambio que se relacionaba con el propio devenir de los movimientos migratorios actuales, así como con la necesidad de actualizar este órgano consultivo tras la evaluación del V Plan de actuación en el ámbito de la Ciudadanía, Interculturalidad e Inmigración (2018-2020) y elaboración del VI Plan Intercultural de Ciudadanía, Inmigración y Asilo (2022-2025), ambos del Gobierno Vasco. Durante este año ha sido aprobado el Decreto 67/2023, de 9 de mayo, que crea el Foro Vasco de Migración y Asilo.

